

UDALAREN OSOKO BILKURA

Saioaren akta

Ohiko bilkura

Data: 2020ko urtarrilaren 15a, asteazkena.

Ordua: 20:00.

2020ko otsailaren 12ko onarpen-saioko aktan dauden iruzkinak jasotzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Eduardo Terroba Cabezon (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (Eh Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

Bilkura osatu denean bertaratuta ez zeuden zinegotziak: Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE) eta Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), azkeneko hori lan-arrazoiengatik ezin izan da etorri.

Gai-zerrenda

1. 2019ko abenduaren 11ko ohiko bilkuraren akta onartzea.
 2. Alkatearen dekretuak eta ebazpenak.
 3. **Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea.**
 4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea.**
 5. **Gizarte Ongizateari eta Euskarari buruzko Batzordea.**
 6. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea.**
 - 6.1. EH Bilduko zinegotziak sinatutako pentsiodunen mugimenduaren mozioa eta EAJ-PNV taldearen zuzenketa.
- Azken puntua) Galderak eta eskeak.

Saioaren izaera eta gai-zerrenda kontuan hartuta, jarraian adierazten dira hartutako erabakien deliberazioa eta bozketa.

1. 2019ko abenduaren 11ko ohiko bilkuraren akta onartzea.

Idazkari nagusiak honako omisio hau ikusi du: 6.1. puntuan (Kreditu-kontuaren banku-kontratua, 2020ko abenduaren 31n amaitzen dena) honako hau dio: Urteko kreditu-kontuaren banku-kontratua Laboral Kutxari esleitzea... Hau esan behar luke: Urteko kreditu-kontuaren banku-kontratua Laboral Kutxari esleitzea, gehienez 500.000 euroko (bostehun mila) zenbatekoarekin.

Hau da, aurreproiektuan ez da jarri kreditu-kontuaren banku-kontratuaren gehienezko 500.000 (bostehun mila) euroren erreferentzia.

Gai hori bozkatu aurretik, Hilario Fernández Ruiz zinegotzia (PSE-EE PSOE) sartu da aretoan.

Alkate jaunak aktaren zirriborroari oharrak egiteko eskatu die zinegotziei. Ez da iruzkinik egin.

Erabaki da:

1) Egindako oharrarekin, onartzea 2019ko abenduaren 11ko ohiko saioaren akta.

Aldeko botoak 10 (hamar); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

2. Alkatetza dekretuak eta ebazpenak.

Idazkariak, alkate-udalburuak aginduta, alkateak aurreko ohiko saioan emandako dekretuen eta ebazpenen berri eman du; 2019ko 19/282 eta 299 bitartekoak dira, baita 2020/1 eta 2020/3 bitartekoak ere.

Bertaratutakoak jakinaren gainean geratu dira.

Alkatzaren dekretu eta ebazpenen irakurketan, Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE) zinegotzia bileratik irten eta berriro ere sartu da.

3. Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea.

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea.

5. Gizarte Ongizateari eta Euskarari buruzko Batzordea.

6. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea.

6.1. EH Bilduko zinegotziak sinatutako pentsiodunen mugimenduaren mozioa eta EAJ-PNV taldearen zuzenketa.

Villanueva jaunak EH Bilduko zinegotziak sinatutako pentsiodunen mozioa irakurri du.

Alkate jaunak EAJ-PNV taldearen zuzenketa irakurri du.

Salvador jaunak bozketaren azalpena irakurri du, erabateko babesa du.

Inclán jauna: Gure taldeak pentsio-sistema publikoa babesten du eta ulertzen dugu ez dela aski egiten ari aurre egin beharrezko arazoa konpontzeko, hau da, gai demografikoari aurre egiteko. Edo sistema aldatzen dugu, edo sistemak porrot egingo du. Eta pentsio-sistemaren iraunkortasun-faktorea defendatzen dugu. Nolanahi ere, sistema eztabaidatzeko foro egokia Toledoko Ituna dela uste dugu.

Gamarra jauna: Pentsiodunari mesede egiten dioten neurri guztien alde gaude. Pentsiodunek bizitzeko beharrezko gauza duin guztiak izan behar dituzte. Horregatik, abstenitu egingo gara mozioan eta zuzenketa. Uste dugu indarrean horren gutxi daraman gobernuari konfiantza-boto bat eman behar diogula. Denen ekarpenak interesgarriak iruditzen zaizkigu.

Villanueva Gutierrez jauna (EH Bildu Oion): EAJren politika egiteko eta gobernatzeko era EH Bilduren ekimenei zuzenketak egitea da, eta gure ekimenak deskafeinatzen saiatzea. Gauza zehatzak nahi ditugu: 1.080 euroko gutxieneko pentsioa. Zuzenketak oso lausoak eta alferrikakoak dira.

EH Bilduko zinegotziak sinatutako pentsiodunen mugimenduaren mozioari EAJ-PNV taldeak eginiko zuzenketa bozkatu da.

Aldeko botoak 4 (lau): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV).

Aurkako botoak 3 (hiru); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

Abstentzioak: 3 (hiru); Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Zuzenketa onartu da. Ez da bozkatu EH Bilduko zinegotziak sinatutako pentsiodunen mugimenduaren mozioa.

EH Bilduko zinegotziak sinatutako pentsiodunen mugimenduaren mozioan sartu da onartutako EAJ-PNV taldearen zuzenketa.

1. Oyón-Oiongo Udalak pentsio-sistema publikoa ongizate-estatuaren ardatzetako bat dela defendatzen du.
2. Oyón-Oion udalerrriak pentsioen gaineko eskuduntza bakarra duen Espainiako Gobernuari eskatzen dio pentsio duin, justu eta nahikoen sistema justu bat bermatu dezala, pertsona guztientzako bizi-baldintza duinak errazteko.
3. Oyón-Oion udalerrriak Toledoko Itunaren Batzordearen bultzada eskatzen du, ahalik eta denbora laburrenean sistemaren iraunkortasuna bermatuko duten pentsioen arloko neurriak ezartzeko eta 23/2013 Legea indargabetzeko. Hain zuzen ere, lege horrek Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Jasangarritasun Faktorea eta Errebalorizazio Indizea arautzen ditu.
4. Oyón-Oion udalerrriak pentsioen erosteko ahalmena eta iraunkortasuna bermatzeko eskatzen dio Espainiako Gobernuari, eta horiek gutxienez KPIaren arabera eguneratzea errespetatzeko.
5. Oyón-Oion udalerrriak Espainiako Gobernuari eskatzen dio, Euskadiko Autonomia-estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 18.2 artikuluan eta Bosgarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoarekin bat etorrira, berehalako transferentzia egiteko Euskal Autonomia Erkidegoari, Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketaren eskuduntzari dagokionez.
6. Oyón-Oion udalerrriak enpresen ordezkarietara eta gizarte-ordezkarieira eskatzen die lan-arloko eta lehentasunezko BGAE-sistema bat ezartzeko Euskadin, denboran zehar etorkizuneko pentsiodunei prestazio-maila bermatzen laguntzeko.
7. Oyón-Oiongo Udalak mozio hau igorriko dio Espainiako Gobernuaren ordezkarietara eta pentsioen arloan eskumena duen Espainiako Gobernuko ministerioari.

Azken puntua) Galderak eta eskeak.

Alkate jauna: Aurrekontu orokorraren zirriborroa zinegotziei bidaliko zaie 2020ko otsailaren 10ean. Alkatetzaren borondatea da aurrekontuak martxoko ohiko saioan eztabaidatzea. Orain arte ez dugu jaso beste administrazioek egindako erabakien edo konpromisoen eredurik, aurrekontu-proiektuaren inbertsio-plana diseinatzeko. Gobernuarekin eta Foru Aldundiarekin izango ditugun elkarrizketetan azpimarratuko dugu gaia.

Villanueva Gutierrez jaunak (EH Bildu Oion) Pozo Fonso kaleko lanak etetearen inguruan galdetu du.

Alkate jauna: World Comexternexport SL enpresak auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen Pozo Fonso kaleko Ekialdeko tartearen Urbanizazio Proiektua behin betiko onartzearen aurka, eta urbanizazio-lanak etetea eskatu zuen; orain erabaki judizialaren zain gaude.

Alkate jauna: Eta lan-mahaia martxan jarri dugu udalerrian. Mahaia hauek osatzen dute: bi ikastetxeetako zuzendaritzak, ikasleen bi guraso-elkarteen presidentetzak eta udaletxeko hezkuntza zinegotzia. Mahaia lanean hasi da.

Fernández Ruiz jaunak (PSE-EE PSOE) galdetu du Udalak gazteleku bat ireki ote dezakeen Sindikalean.

Alkate jauna: Aurreikuspena da inbertsioa egitea Etxe Sindikalari erabilera berriak emateko, tartean dauden instituzioekin (Osakidetza, Lanbide) hitzarmen bat edo batzuk sinatzearen bidez. Aurreproiektua aurkezteko zain gaude.

Alkateak Osasun Zentroko ordezkariarekin izan dituen hainbat elkarrizketatan adierazi da esleitzen zaion espazioa txiki geratu dela egunero hartzen duen lan eta kontsulten bolumenari dagokionez. Oyón-Oiongo Lanbide La Giralda kaleko 1. zenbakian dagoen udal-lokaletan dago eta gutxi gorabehera 80 m²-ko azalera erabilgarria du. Zentroko ordezkariak jakinarazi du lekuak ez dituela baldintza egokiak egunero hartzen duen lan eta kontsulten bolumenari dagokionez. Kontuan hartu behar da Oyón-Oiongo biztanleria urtero handitzen ari dela eta Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-tasa handiena duen udalerrietako bat dela. Beharrezkoa da gune komunean eremu zabalagoa izatea, baita kontsultetarako eta horiekin lotutako lanetarako gordetako espazioa handitzea ere. Horregatik ezin da eraikin horretarako behin betiko erabakirik hartu.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 22:05ean (bilkura 20:00etan hasi da), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oion, 2020ko urtarrilaren 29an.

Udaleko idazkaria:

Alkateak O. E.